

## Itsasoetako bitxikeriak

Opisthognathidae familiako arrain arrek ahoan inkubatzen dituzte arrautzak. Noizean behin kanpora bota, oxigena daitezten, eta berriz barrura. Itsasoko animaliek horrelako bitxikeriak dituzte. Halako hamaika istorio bildu ditu Ellen Prager itsas biologoak *Sex, Drugs and Sea*



ARG.: STEVEN KOVACS

Slime liburuan: ernalketa-estrategiak, defentsa-mekanismoak, forma-aldaketak, kamuflajerako gaitasuna..., dena argazki ederrez lagunduta.

Itsas zaldi pigmeoa da liburuko beste protagonista bat. Arrain bitxi honek

zentimetro pare bat baino ez du neurtzen, eta kamuflajeaz izugarri trebea da. Izan ere, kolorez aldatzeko gaitasuna du: argazki honetan, esaterako, inguruan duen gorgoniaren kolorea hartu du.



ARG.: VICKIE COKER